

ESKUBIDEEN ARTEKO LOTURAK

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Elikadurarekin, urarekin eta eskubideekin lotutako kontzeptu garrantzitsu batzuk ezagutzea.

Garapen jasangarrirako 1., 2., 3., 6. eta 12. helburuak.

Iraupena

Saio bat

Zikloak 2, 3

Aurretiazko oharra

Gaia sakontasunez landu baino lehen, atariko modura egin daiteke jarduera hau.

Eskubideen bi ildo landuko ditugu, eta eskubide horien artean dauden loturak ikusiko:

1. ildoak: Elikadura, Osasuna eta Hezkuntza.
2. ildoak: Ura, Osasuna eta Hezkuntza.

Jarri ikasleak talde kopuru bikoitietan banatuta, ildoetako bakoitza hainbat taldek landu dezaten.

Taldeek beren ildoko eskubideen artean dauden loturak aurkitu beharko dituzte; zenbat eta lotura gehiago, hobeto. Loturek zentzuzkoak izan beharko dute eta justifikatu egin beharko dira.

Adibidez:

Edateko ura izanez gero, uzta oparoa bilduko dugu eta abereak egoera onean egongo dira. Beraz, gizakiok osasuntsu egongo gara, eta horrela aukera gehiago izango dugu eskolara joateko.

Garapena

Jarri neska-mutilak taldeka. Talde bakoitzari ildo bat eman.

Azaldu ondo zer eskubide landuko dituzten, garbi uler ditzaten.

Esan egokitu zaien ildoko eskubideen artean dauden loturak ezartzen saiatu behar dutela. Nolabait esateko, galdera hauei erantzun beharko diete:

- Zer lotura dago hiru eskubide horien artean?
- Eskubide horietako bat betetzen ez bada, ez-betetze horrek nola eragiten die beste eskubideei?

Utzi denboratxo bat, taldeek lana egin dezaten. Gero, talde bakoitzak eskubideen artean ezarri dituen loturak azalduko ditu.

Talde guztiek egin dutenean beren aurkezpentxoak, hausnartu egingo dugu, honelako galderak eginez:

- Ba al zenekiten eskubideen artean loturak daudela?
- Zer da landu berri dugun honetan harrigarriena iruditu zaizuen? Zergatik?